

www.noaia.com

# Noaia!!



Andatza Mendi Taldea,  
etorkizuna kolokan



Indarrean da  
Usurbilgo Berdintasun Plana

# LASER DIODO IRAUNKORRA

## LIGHTSHEER® DIODO LASERRAKIN

Depilatzeaz nazkatuta baldin bazaude, depilazio iraunkorra lortzeko aukera paregabea eskeintzen dizugu:

Bai **GIZON** eta **EMAKUME** tratamenduetan

# %50

Promozioa abenduak 31 arte.

**INFORMA ZAITEZI!**



Nagusia 8. 943 36 36 41 (egun guztia irekia)

Kalitatezko produktuekin estilismoa eta estetika lantzen ditugu



# pikabea

Aseguru Artekaritza

## Eskatu aurrekontua

- autoak
- etxeak
- bizi-aseguruak
- komunitateak
- merkataritza-dendak
- enpresak
- pentsio planak

CATALANA OCCIDENTE

Allianz

LAGUN ARO SEGUROS

ARAG

GENERALI Seguros

mutuavenir: seguros y servicios

FIATC SEGUROS

Caser SEGUROS

## Albistea iruditan!!

# El Salvadorreko delegaritzari ongi etorria

El Salvador herriari lotutako hitzaldi batekin hasi zen III. Elkartasun Astea. Andatzpen burutu zuten afari tertulia baino lehen ordea, El Salvador, Colombia eta Mozambique herrialdeetatik hitzaldia eskaintzera etorritako emakume taldeari harrera egin zion udal ordezkariak udalbatza aretoan. Euren herrialdeetan bizi duten errealitatearen berri eman zuten, gogoraraziz emakumearen paperak duen garrantzia. Mozambiquen adibidez, ekonomiaren %80a nekazaritzan oinarritzen da, eta bertan lan egiten duten hamar herritarretatik zazpi emakumeak dira.

Ekitaldian, Udalaren izenean, oroigarri gisa Mikel Laboaren omenaldirako baliatu zen erretratu bat eta liburu bat jaso zuten.



UDALAK HARRERA EGIN ZIEN ELKARTASUN ASTEKO KIDEEI.

## Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil  
Telefono zenbakia: 943 36 03 21

E-posta: [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com)

[www.noaua.com](http://www.noaua.com)

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com)

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com)

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com)

Publizitatea: Bea Alda, [publizitatea@noaua.com](mailto:publizitatea@noaua.com)

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzísidor, Maria Angeles Arruti, Aitor Eleta, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Begoña Rekondo, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alasne Begiristain, Denis Elortza, Garazi Iturralde, Pello Aranburu, Maider Makazaga, Maddi Galbete, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

ALDAKETAK SANMARKON **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN **6. OR.**

BERDINTASUN PLANA, ONARTUTA **8. OR.**

USOA ZUMETAREN ERAKUSKETA **10. OR.**

BURUNTZALDEKO IBILBIDEA, IGANDEAN **13. OR.**



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**ALDAMU**  
KONPONKETAK  
KALE NAQUISIA 10- atzekaldea  
943 372 795

**Poxpolin**  
MERTZERIA  
943 36 82 06  
Zubiaurrenea 3, baxua

**TAXI**  
677 37 34 66  
943 36 69 69  
Jose Etxabe (24h) USURBIL

**Otar-Goxo**  
Elkarguak  
Zubiaurrenea, nº2  
943 36 55 81  
20170 Usurbil



JOXE PIÑAS

## Afari-tertulia

**E**l Salvadorreko Frente Farabundo Martí de Liberación Nacional (FMLN) eta gobernuaren ejertzitoaren arteko guda zibilak, 1980tik 1992ra arte iraun zuen. Melida Anaya Montes, emakumea, politikoa, irakaslea eta FMLN-ren sortzailea izan zena, 1983. urtean erail zuten. Milaka emakumek El Salvadorreko gudan armak hartu zituzten. Guda amaitu ondoren gizarte zibilean lanean jarraitu nahian, horietako batzuek "Las Melidas" erakundea sortu zuten, izen honekin borrokaren mamia gorde zedin.

Pasa den astean, Las Melidas erakundeko bi emakume III. Elkartasun Astearen ekitaldian parte hartzeko Usurbilera etorri ziren.

Herrira iritsi ginen lehenengo momentutik nabarmena zen bi emakume hauek beste herrialdeekiko daukaten sentsibilitatea. Usurbilgo kaleetan ordu erdiz paseatzearekin nahikoa izan zuten herri honekin lotura sentitzeko: Mikel Laboaren eskultura hori, argazki hauetan dauden pertsonak, kartel horiek, Zumetaren murala eta inguruko pinturak, umeak plazan jolasten, elizaren, udaletxearen eta Paris Etxearen kokapen estrategikoak,...

Udaletxeko harreran El Salvadorreko emakume hauek Euskal Herriarekiko esker ona ageri zuten.

Hitz xumeekin gogora ekarri zituzten nola guda garaian euskaldun internazionalistak ezagutu zituzten, nola hauen lagun bihurtu ziren... eta heriotzaren gainetik justiziarekiko grinak batzen gaituela sentiarazi ziguten. Hitz xume bezain hunkigarriak. Sinbolismoz eta egiaz beteriko momentua izan zen.

Handik soziedadera afaltzera joan ginen. Afaldu baina lehen, salvadortarrek "Las Melidas" erakundeko lana eta beraien esperientzia pertsonalak mahai inguruan konpartitu zizkiguten: guda garaiko gorabeherak eta guda osteko desfioak eta hutsuneak emakumeen esperientziaren ikuspuntutik.

Kolonia eta Mozambikeko beste bi pertsona ere etorri ziren, beraiekin solasaldia aberastu zena.

Platera mahai gainean izanda, sortutako konfiantzazko giroa areagotu zen, eta kanpoko lau emakume hauen eta Usurbilgo gizonezko eta emakumezko kontuekin tripak eta bihotzak bete zitzaizkigun.

Kolonbiak, Mozambikek, El Salvadorrek eta Euskal Herriak momentu sozio-politiko ezberdinak bizi dituzten arren, herrialde ezberdinen esperientziek eta hango eta bertako pertsonak ezagutzeak balio handia daukate. Elkartasunari zentzua emateaz gain, gure errealitatea ulertzeko eta bideratzeko balio diezaguketelako.

Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Ugaitz Agirre - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: urriak 22. Idatzia ekartzeko azken eguna: urriak 18.

Kale nagusia, 10  
Telf: 943 37 33 48  
943 37 09 13

Olandegia - Gozotegia

**LABE-GOXO**

**Patri Jatetxea**

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8  
☎ 943 370 008

**ALIPROX**

Kale Nagusia 10  
☎ 943 361 182  
USURBIL

## Hedabide eta herritarrak kanporatuz hasi zuen agintaldia Sanmarkoko gobernu berriak

**S**anmarko Mankomunitateak gobernu talde berria du, joan den urriaren 5az geroztik. Datorren maiatzeko hauteskundeak burutu artean, Juan Carlos Merino (PSE-EE) eta Zorione Etxezarraga (EAJ-PNV) izango dira, Sanmarkoko lehen-dakari eta lehendakari orde berriak hurrenez hurren.

Juan Carlos Merinoren hautagaitzak 82 bozka eta Imanol Azpirozek 75. Aurreikusi bezala burutu zen joan den urriaren 5ean gobernu aldaketa Sanmarko Mankomunitatean.

Bilkurak hainbat hedabideren arreta erakarri zuen. Bertan zen baita errausketaren aurkako mugimenduko ordezkari-tza bat ere. Lehenbizi bilera burutu zen Sanmarkoko Donostiako egoitza atarian bildu ziren. Jada zuzendaritza berriko kide direnei harrera egin zieten, eskuetan kubo marroi loreduak eta globo urdinak zituztela. Errausketaren aurkako aldarrikapenak entzun zituzten, egoitzara sartzeko lurtean zegoen errautsa zapaldu behar izan zuten gobernu berriko kideek.

Jarraian, aipatu moduan, hedabideekin batera bilera gelan sartzeko eta kargu aldaketa gertutik jarraitzeko aukera izan zuten. Bilerako gai zerrendako lehen pun-



BOZKETAN, GIPUZKOA ZERO ZABOR TALDEKO KIDEAK ERE IZAN ZIREN.

tuak, gobernu berria osatzeko bozketa zekarren. Imanol Azpirozek salbu, beste inork ez zuen adierazpenik egin.

### Lorontzia oparitan

Bozketa burutu eta berehala, Gipuzkoa Zero Zabor herri mugimenduko ordezkarietako batek, kubo marroi loredu bat oparitu zion lehendakari berriari, Juan Carlos Merinori. Euskaraz helarazi zion mezuan, lorontzia eman zion errausitik bota ez eta urezta dezan.

Horrekin batera, errausketaren aurkako herri mugimenduko kideek eskuetan zituzten globo urdinak jaurti zituzten

gobernu berriaren mahai gainera.

### Aldaketa, berehalakoa

Bilerak eman zuenaren aurrean inolako adierazpenik egin gabe, bozketa burututa aldaketa berehala sumatu zen. Minutu gutxian, zuzendaritza karguak mahai mutur batetik bestera lekuz aldatu bezain laster, gobernu berriak segituan hartu zuen euren agintaldiko lehen erabakia; aurreko zuzendaritzak oztopatu gabe, bilera aretora sartu ziren herritar eta hedabideak kanporatu zituzten. Zuzendaritza aldaketak komunikazio hizkuntza ere euskaratik erdarara aldatzea ekarri zuen.

## Gipuzkoa Zero Zabor: “Gestioan gardentasuna aldarrikatzen ari diren horiek kaleratu gaituzte”

**G**ipuzkoak Zero Zabor bidean pausoak ematea beharrezkotzat jotzen dute aipatu izena daraman mugimenduko kideek, eta ez aldir, “lehendakaritza aldaketa bat”. Prentsa ohar bidez argitu dute Juan Carlos Merino presidente berriari zertarako eman zioten loreez hornitutako ontzi marroia. Jakinarazi dutenez, “herritarren osasuna kaltetuko duten politikak ez ditzan aurrera eraman eskatzeko”.

Lehendakari gisa, hartutako lehen erabakia, herritarrak eta hedabideak kaleratzea izatea salatzen dute. Kezkatuta irten zirela diote, “gestioan

gardentasuna aldarrikatzen ari diren horiek kaleratu gaituzte”.

Zergatik kaleratu zituzten, gobernu berriak zer ezkututzen duen edota noren zerbitzura lanean ari diren galde-tzen dute.

Orain arteko Mankomunitatearen lan ildoak jarraitzea deitu du Gipuzkoa Zero Zabor taldeak: “gauzak ondo egiteko bideak badirela erakutsi du, erabili ditzagun”. Errausketaren aurka dardela gogoraztearekin batera, osasuna lehenetsi, eta dirua, murrizte, birziklatze eta berrerabiltzera bideratzea galde-giten dute.



ATEZ ATEKO KUBOEKIN ETA GLOBOEKIN BERTARATU ZIREN.

AGINAGA

M<sup>A</sup> ANGELES ARRUTI

## Antolatzaileei, mila esker



**F**esta giroan gaudenez, “hamar pus-tarri” eman nahi dizkiet hemendik antolatzaileei egiten duten lanagatik. Irailaren 12an ospatu zen Kontxan irabazitako bigarren banderaren 50. urteurrena. Zer egun ederra igarogenuen. Dena oso ondo; elizkizuna, bazkaria, eta baita eguraldia ere, dena ondo.

Orain, pasa den astean izan diren emaitzak adierazi nahi ditut. Pala Txapelketako finala Aginagan gelditu zen Xabier Errasti eta Imanol Esnaola izan baitziren irabazleak Errekondo eta Loidiren aurka (25-23). Eskupilota txapelketako finalean, Urmeneta-Elola irabazle Santxo-Perezen aurka.

Mus txapelketan Juan “Txantxon” eta Joxe “Oloki” irabazle, Eñaut Pagola eta Unai Imaz gazteen aurka. Plater tiraketa, eta Antxon Arrizabalaga (aiarra) irabazle eta Martija bigarren.

Igandean herri kiroletan bi talde sortu ziren eta kami-seta txuriak irabazle urdinen aurka. Ikuskizun ederra eskaini ziguten gure gazteek, zorionak. Bestalde, apaiz-



etxeko lokalean dagoen erakusketa ere aipatzekoa da. Zer artea dute eskuetan gure herriko hainbat emakumeek. Ez gelditu ikusi gabe, margolan, ohialean, ganxillo edota bolillo lanak, eta abar. Eta inork ez du gai horretan ikasketa berezirik.

Antolatzaileei mila esker, denagatik eta kritika egiten dizuetenon altueran ez jarri, ez du merezi. Laguntzea baino errazagoa baita mingaina astintzea. Aupa eta aurrera gazteak!!!

KALEZAR

BELMONTE AUZO ELKARTEA

## Karmentxueneko bidea

**N**OAUA!-k emandako aukera hau aprobetxatuz, lehenik eta behin, gure aurkezpena egingo dugu. Belmonte Auzo Elkarte da gure izena eta Kalezar auzoko ordezkari gisa jarduten dugu lanean. Gure eginbeharra auzoko beharrak ikusi, auzotarren nahiak, beharrak edota arazoak entzun eta udalean islatzea da, irtenbide bat bilatzeko asmoz, askotan nahiko zaila den arren. Hala ere gure ekimenarekin jarraitzen dugu, auzoaren onurak merezi du eta.

Une honetan Udalarekin konpondu behar ditugun gai ugari ditugu esku artean, baina oso leku murrizta dugunez gai bati buruz idaztea dugu aukera egokiena. Kronika hauei esker auzotarrek gure lanaren nondik norakoa jakin ahal izango dute eta guretzat oso aberasgarria izango da aukera hau izatea. Askok kezkatzen gaituena “Karmentxueneko” bidezidorra da. Bertako bizilagunek “atez ate”koa egin ahal izateko autobus geltokiraino jaitsi behar dute egunero, bertan baitituzte zintzilikagailuak. Bidezidorraren egoera nahiko tamalgarria dela kontuan izanda, irristatu eta erortzeko arrisku handia dute. Honi guztiari berehalako irtenbide bat eman behar zaiola pentsatzen dugu, batez ere orain negua ate joka dugula.

URDAIAGA

NEREA AIZPURUA

## Udazkeneko joan etorriak

**Z**uhaitzak biluzten, eta ingurunean kolore urre eta marroixkak nagusitzen ari diren inguru honetatik, udazken on guztioi!!! Urdaiaga alde honetan, azken asteotako uda giroarekin, jende mugimendua nabaritu da Andatza aldera, hotzaldia ailegatu aurretik, urteko azken osteratxoak egitera. Eta perretxikuetara, ahal zuenak behintzat, begi ona bazuen, harrapatuko zuen zerbait etxera eramateko. Edo ez, inguru hauetako perretxiku guneak “kontrolatuak” baitituzte betiko zaletuek. Isilpean eskutada ederrez hornitutako poltsak eramanak izango dituzte. Zorteduna, ohiko biltzailea izan ez, eta Andatza bueltan zerbait aurkitzen duena.

Jai zubia izan dutenek perretxiku ehizarako tartea hartuko zuten, ehiza garaia baita honakoa. Bestalde eguntan ospatu diren Aginagako San Praixkuekin amaitu dira inguru hauetako jaiak, aurtengoari dagokionean. Edo ez. Datorren abenduaren 26an San Esteban Txiki eguna ospatuko baita Urdaiagan. Gabonen bueltan ere joan etorria izango da gain honetan, urtean zehar beste hainbatetan gertatu ohi den moduan. Hurrengora arte.



ATXEGALDE

AINARA ARNAIZ

## Konturatu dadila



**N**i ez naiz inorri zer eta nola egin behar duen esateko. Ni ez naiz inor zure bizitzan sartu eta gaizki edo ondo ari zaren esateko. Ni ez naiz inor, nire ondoak eta gaizkiak baditudalako ere.

Ez naizen hori naizelakoan, ordea, gaurkoan kronika hau zuretzat doa baina ez zu zarelako soilik, zu bezala gehiago baitira gauzak behar diren moduan egitea, ondo egitea albo batera utzi eta bestean gaintetik nahi dutena nahi duten moduan eta momentuan egiten dutenak. Ez zarete asko, zorionez, baina batzuk bazarete eta hori ez dago ondo. Batzuen hitzetan atez ateko sistema “ezarri” zigutela jada denboratxo bat pasa da. Eta funtzionatzen ari da, nola gainera! Inguruko hainbat herrik gurearen antzera gauzak ondo egin nahian sistema hau ari dira aukeratzten. Hasieratik ezezkoaren alde zirenetatik batzuk atez atekoa etxeko sukalderraino sartu eta probatu ondoren ikusi ahal izan dute ez dela esaten zutenaren modukoa. Egia esan, egunero tokatzen den kubotxoa, edo kartoi zein plastikoa-ekin portal ondoraino jaitsiz, gustora ikusten zaiela esango nuke. Eta kito!! Hainbestearainokoa al zen? Hauei, zorionak argia ikusi dutelako. Baina eta “besteoi”, zer esan “zuei”?



Lehen behintzat lotsagatik edo gaizki eginaren jabe zinetelako gaueko ilunean, sagutxoan antzera ezkutuan zabor poltsak hara eta hona txokoetan utziz, egun argiz ikustarazten zeniguten hor zinetela, atez atekoaren aurka jarraitzen zenutela. Baina orain? Argi duzue zuena dela arrazoaia, uste duzue dela benetako egia, eta inongo lotsarik gabe zuen poltsekin, zabor poltsekin, batera erreziklatu gabeko zabor pilarekin auzoko txokoak apaintzen dituzue. Zuen narraskeriaz nazkatuta idatzi dut idatzi dudana, konturatu dadila konturatu behar duenak.

KALEBERRI

IRATI PORTU

## III. Ibilbide Eguna



**I**gande honetan, hilaren 17an, ospatuko da Buruntzaldeko hirugarren Ibilbide Eguna. Buruntzaldeko udalerrriak lotzen dituen ekimen hau bertako ibilbideak hobeto ezagutarazteko asmoarekin sortu zen duela hiru urte. Modu horretan, inguruan ditugun baserri, karobi eta paisaiak hobeto ezagutu eta gozatzeko.

Aurtengoan Lasarte-Oriari tokatu zaio ekitaldia antolatzea, baina norbera bere herritik abiatu daiteke. Gainera, esan beharra dago autobusak egon ohi direla ondoren abiatu zaren puntura bueltatzeko. Zigilu bat ipintzen da abiatu zaren herrian eta bi ibilbide eginez gero, kamiseta bat jasotzen da opari.

Egia esatea nahi baduzue, ez naiz sekula izan, baina interesgarria izaten omen da. Herrietan ibilbide-zati bakoitzaren inguruko trazatuak, profilak eta distantziak erakusten dituzten panelak egoten dira. Bestalde, ez dugu galtzeko beldurrik izan behar, bideetan zehar herri bakoitzari dagokion koloreko seinaleak eta geziak jarriak baitaude.

Beraz, igande honetarako planik ez baduzue, animatu!

ZUBIETA

PELLO ARANBURU

## Babarrun kontuak

**L**agunekin nengoela galdezka hasi nintzaizen Zubietako kontuez. Harik eta galdetu zidaten arte ea artikulua idatzi behar ote nuen NOAUA!-rako. Baietz. Hortik aurrera ixil-mutu, izkin egiten saiatu ziren. Horixe orain dela lauwpabost egun.

Etxekoez aritu behar ezinbestean. Orain dela gutxi alabak galdetu dit ea zer den “jakintza induktiboa”. Saiatu naiz azalpen batzuk ematen, baina azkenean adibideen bidez azaldu behar izan diot. “Orain dela urte pare bat babarrunak egin nituen. Arbatarako arto landare pare erabili nuen. Udan gehiegi zaindu gabe ere, udazkenean 30 kilo babarrun eta 120 kilo arto sartu nituen etxean. Eta nik horrenbeste arto batera sekula ikusi gabea nintzen. Aurten berriro jarri dut babarruna. Baina, hainbeste arto nahi ez nuenez, arbatarako bi arto landare jarri beharrean bakararra jarri dut. Eta haizeak eta euriak babarrun erdia lurrera bota didate, arto bakarrak pisua ezin eramanda. Horrela, urtez urte ikasten da nola egin behar den babarruna”. Gero erantsi nuen: “Saiakeretatik ateratzen den jakituriari -zientzia legee- esaten diogu jakintza induktiboa”. Zer ikasi dudana nik? Ez dela egun hauetako beroa nire gerriko minaren erruduna.



# Udalbatzak onartu ondoren, Berdintasun Plana jendartearen aurkezteko garaia heldu da

**D**atorren urriaren 21ean aurkeztuko du Udalak, azken urteotan burutu den prozesuaren emaitza; datozen lau urteotarako Berdintasun Plana. Joan den iraila amaierako osoko ohiko bilkuran udal ordezkarien gehiengo osorearen babesa jaso zuen testuak, arloz arlo 2014. urtera arte hainbat asmo betetzea proposatzen du. Astebete barruko bilkura informatiboa izango da, baina baita herritarren zalantzak argitu eta euren ekarpenak egiteko gunea ere.

**NOAUA! Zergatik eta zertarako deitu duzue bilera?**

Clara Wolfram. Berdintasun Plana herrian aurkeztu nahi diegu, bereziki gai horren inguruan kezka edo interesa duten herritarrei. Plan honen aurkezpen publikoa egin nahi dugu, gai horren inguruan kezka edo interesa dutenekin biltzeko eta ikusteko zehazki, plan horretan agertzen diren ekintzak nola garatzen ahal diren hemen, Usubilen.

## URRIAREN 21EAN

“Planaren helburuak eta lan ildoak ezagutzeko aukera izango da Artzabalén”

Prentsan kiroletako orrialde gehiengotik gizonen erasoak agertu edo sexu erasok edo etxeko tratatu txarrak gertatzen direla ikustean, egoera horiek jende askori kezkatzen diote. Gogo bat dago batzuen artean gai horiek landu eta egoera hobetzeko zerbait egiteko. Bilera hau horren inguruan hitz egiteko antolatu dugu. Etortzen diren denen artean eztabaidatu eta plan horretan agertzen diren ekintzak nola garatu ikusteko.

**N. Arloz arlo dituzuen asmoen berri emango duzue?**



CLARA WOLFRAM, BERDINTASUN PLANA BULTZATU DUEN UDAL TEKNIKARIA.

C. W. Arloz arlo ekintzak praktikan nola garatu, halako gauzen inguruan azterketa egingo dugu bilera horretan. Hezkuntzan adibidez, helburuetako bat, etxeko lanak eta familia zaintzaren banaketa orekatua sustatzea dugu. Hori nola egin dezakegu? Zer antolatu dezakegu etxeko lan partekatua sustatzeko? Zer egin dezakegu gizon eta emakumeak horren inguruan pentsarazteko? Zer nolako ekintzak? Halako gauzen inguruan hitz egiteko izango da bilera.

**N. Jauzi bat eman nahi duzelako berdintasun asmoetatik ekintzetara?**

C. W. Azken hamarkadetan gauzak asko aldatu dira. Gaur egun joaten bazara ikastolara, haurren bila joaten dira gizon eta emakumeak. Emakume gehiago joaten dira, askoz gehiago, baina gaur egun ere eskolaren atean ikusten ditugu aitak eta aitonak. Ama eta amonen taldea askoz handiagoa da, baina gauza asko aldatu dira jadanik. Gizonentzat geroz eta garrantzitsuagoa da seme-alaben zaintza, rola aldatzen ari dira. Baina halere oraindik hainbat gauzetan bultzada bat behar da, gauzak benetan oreka batera eramateko.

Gauzak benetan partekatua izateko, eta noski, gizon eta emakumeen arteko harremanetan ere tratatu ona landu eta bultzatzea beharrezkoa dugu.

## “Orekarik gabe ez dago tratatu onik”

**NOAUA! Oreka da helburua?**

Clara Wolfram. Oreka eta tratatu ona. Baina orekarik gabe ez dago tratatu onik, tratatu txarra desoreka batengatik gertatzen baita. Ideia batengatik, gizonak posible du momentu batean emakumeari tratatu txarra ematea. Hori aukera bezala ere existituko ez balitz, guztion artean ziurrenik tratatu ona egongo litzateke.



“TRATU TXARRA DESOREKA BATENGATIK GERTATZEN DA”.



# Lan talde bat sortu nahi da, Berdintasun Planari jarraipena egiteko

**N**OAUA!. Urriaren 21eko bileraren ondoren, zer urrats gehiago emateko asmoa duzue?

Clara Wolfram. Bilera honetan ikusi nahi dugu, ia posible genukeen Usurbilen lan taldetxo bat sortu, hilean edo bi hilean behin biltzeko. Beti ere, planaren garapenean herritarren parte hartzea bermatzeko, eta orokorrean herritarren nahien arabera lana garatzeko. Horregatik, jarraipena izaten ahal du nahi dutenentzat. Halere ekitaldira gai horren inguruan gehiago jakin, baina baita bilera egunean bakarrik parte hartu nahi duena ere gonbidatu nahi dugu.



PLANEAN JASO DIREN LAN-ILDOAK AURKEZTUKO DIRA URRIAREN 21EAN.

## Planak jasotakoa, arloz arlo

**U**dalbatzak onartu berri duen planean, zortzi lan arlo bereizten dira. Aurrerapen moduan, eta gehiago direla jakinik, hona hemen Udaleko Berdintasun Saitetik arloz arlo gauzatu nahi dituzten asmoetako batzuk.

### 1- Udala

- Berdintasun Kontseiluaren sorrera.
- Udal ekimenetan aukera berdintasuna bermatzea.
- Udal langileen artean berdintasuna bultzatzeko trebatzea.

### 2- Kultura, euskara eta gazteria

- Ikastaroak antolatzea.
- Tokiko hedabide eta kultur elkarteak parekidetasunaren alde jarduteko trebatzea.

### 3- Kirola

- Estereotipoak gainditzea.
- Emakumeen parte hartzea bermatzea.

### 4- Hezkuntza

- Hezkidetzaren programa sortzea.

-Gazteekin lan egiten duten begiraleen formazioa bultzatzea.

-Gurasoen artean ardura banaketa orekatua sustatzea.

### 5- Enplegua eta lana

-Bizitza pertsonala eta lana uztartzeko aukera hobetzea.

### 6- Gizarteratzea

-Indarkeria matxista prebenitzea eta horren inguruko sentsibilizazioa garatzea.

-Diskriminazio edo bazterketa-arriskuan dauden emakumeen ahalduntzea sustatzea.

### 7- Osasuna

-Sexu-informazioa eskaintzea.

-Emakume zaintzaileen eskubide eta ongizatea sustatzea.

### 8- Hirigintza, ingurumena eta garraio publikoa

-Herriko "puntu beltzen" azterketa egitea.

-Nekazaritza eta ingurumen arloko emakumeen lana ikusaraztea.

### Aurkezpena, astebete barru

Eguna: urriak 21, osteguna.

Ordua: 18:00.

Tokia: Artzabalgo areto nagusia.

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

### Informazio gehiago, Berdintasun sailean

Berdintasun plana ikusgai:

[www.usurbil.net](http://www.usurbil.net)

**Bulego ordutegia:** asteazken, ostegun eta ostiraletan, 10:00-14:30.

**Telefono zenbakia:** 943 371 951.

**E-posta:** [berdintasuna@usurbil.net](mailto:berdintasuna@usurbil.net)



## Usoa Zumeta

# Artisau lanetan, artista

**K**oldobika Jauregi, Dora Salazar, Juan Luis Goenaga, Nestor Basterretxea, Jose Luis Zumeta, Blami, Judas Arrieta eta Hugh McCarthyren margoetan oinarritutako serigrafiak ikusgai dira Sutegin. Usoa Zumetak egin eta bildu duen lan grafikoa.

**NOAUA!. Serigrafia, estanzioa, lan grafikoa... Nola definitu behar dugu egiten duzun lana?**

Usoa Zumeta. Lan grafikoa egiten dut eta erabiltzen dudana teknika serigrafia da.

**N. Nola gerturatu zara serigrafia-  
ra? Beste teknika batzuk lantzen al dituzu?**

U. Z. Arte Ederrak ikasten ari nintzela, serigrafia ikastaro bat egiteko aukera izan genuen Artelekun. Hori izan zen teknika honekin izan nuen lehen kontaktua. Magia puntua du. Inprimatua den guztiak kalitate oso indartsua du. Eta indar asko du, bereziki, koloretan.

### SERIGRAFIK EGITEN DITU

“Nik ez dut nire burua  
artistatzat jotzen,  
ni artisaua naiz”

Karrera bukatuta, pintura egin nuen baina nahikoa argi nuen serigrafiatik joko nuela. Baina ez nire lanak egiten, baizik besteen lanak serigrafiatzen. Nik ez dut nire burua artistatzat jotzen, ni artisaua naiz.

**N. Eta zer du teknika honek hain erakarri izateko?**

U. Z. Oso bide polita da. Pintura, pintura da. Eta eskultura, eskultura. Artista batek bere lana beste teknika batera itzuli behar duenean (kasu honetan, serigrafia), hori aldaketa asko daude. Eta garapen-prozesu hori ikustea oso aberatsa da. Niri hori asko



USOA, SUTEGIN JARRI DITUEN SERIGRAFIA LANEN ONDOAN.

gustatzen zait.

**N. Zure serigrafietan puntako margolarien lanak islatu dituzu. Nolakoa da margolariekiko harreman hori? Jarraipen bat egiten diote zure lanari?**

U. Z. Implikazio maila ezberdinak daude, baina hemen dauden artista guztiak asko inplikatu dira. Egin izan ditut bestelako lan batzuk, original bat iristen zaizu eta erreproduktzio hutsa egin behar da, eta egiten duzu; beste lan bat da.

Baina kasu honetan margolari denak inplikatu dira asko. Harremanak sortzen eta sakontzen joan dira. Koldobikarekin eta aitarekin adibidez, ibilbide luzea egin dut. Basterretxearena da berriena. Azken urte honetan hasi naiz berarekin lan egiten.

**N. Enkarguak jasotzen dituzu ere.**

U. Z. Enpresa-opariak egiten lan asko izaten dut. Enkarguak hortik datoz. Kasu horietan, zuzenean artistarengana jotzen dute eta artistak niri eskatzen dit serigrafia-seriea edo edizioa egitea. Kasu horietan, edizioa salduta izaten da aldezturik.


Baina nik ere edizio mundu hori lantzen dut, artistekin harremanetan

jarri eta nire kabuz editatzen ditut serigrafiak (erakusketa honetan bilduta daudenak, adibidez).

**N. Arriskatu egiten duzu orduan?**

U. Z. Arriskua baina, lana da. Lana da jarri dudana.

Lagun eta etxekoan  
babesa, inaugurazio  
ekitaldian



**P**asa den astean zabaldu zen erakusketa. Lunch moduko baten bitartez, erakusketako lanak lehen aldiz ikusteko aukera izan zuten Sutegira hurbildu ziren guztiak. Tartean ziren JoxAnton Artze idazlea, Alejandro Tapia margolaria eta Jose Luis Zumeta bera, Usoaren aita. Mikel Laboaren alarguna Marisol Bastida ere bertan izan zen.

## “Erakusketa honetan ikus daiteke, zehazki, zer egiten dudan”

NOAUA! Erakusketa hau oso puntuala da ala beste toki batzuetara eramango al duzu ondoren?

Usoa Zumeta. Erakusketa hau lehen aldiz egin dut. Baina maila horretan badut esperientzia. Obra multzo bat biltzerakoan, erakusgai jarri izan dut. Arrasaten bi urtetan egin dut antzekorik. Eta esperientzia oso positiboa izan da. Ez da zaila erakusketa bat antolatzea. Lana egiten zozan heinean, obra osatzen doa.

N. Zure burua ezagutarazteko modu bat da, gainera.

U. Z. Herrian erakusketa egitearena ere bada zer egiten dudan azaltzeko aitzakia. Sutegi oso aproposa da zentzu horretan. Jendea ez da oso ondo akklaritzen zer egiten dudan. Uste dute pintatu egiten dudala. Eta erakusketa honetan ikus daiteke zehazki zer egiten dudan.

### LANAK EROSTEOKU AUKERA

“Sutegin eskegita dauden serigrafiak salgai daude; 120 eta 450 euro artean”

N. Lagungarria da aita hain ezaguna izatea, ala kontrakoa?

U. Z. Ikasle garaian sumatzen nuen zama modukoa zela. Baina oso jarrera eroso hartu dut gaurko egunean. Ni artisaua naiz.

Baina ate asko ireki dizkit. Serigrafiak editatzeko hainbat artistei deitu diet eta Zumetaren alaba izango ez banintz, igual ez zidaten telefona hartu ere egingo. Edozein tokira zozela ere, behintzat entzun egiten zaituzte. Gero proposatzen duzun hori gustatuko zaie edo ez. Baina egia da ate asko ireki dizkidala. Eta hori abantaila handia da.

N. “Oi, Bihotz!” erakusketak satisfazio handiak eman al dizkizu?

U. Z. Oihartzun handiko lana izan



USOA ZUMETA BERE TAILERREAN, SERIGRAFIA LANETAN.

da. Bilboko Arte Eder museoan aurkeztu zen liburua, oso garrantzitsutzat jotzen dudana. Ate asko ireki dizkigu eta ibilbide bat egin da liburuarekin; ez da bukatu gainera. Oraindik jarraitzen dugu erakusketa horrekin lanean. Erakusketari esker, jende askok ezagutu du lan hau eta esperientzia oso polita izan da.

Liburu bat egiteko desioa, bestetik, aspaldikoa zen. Nire lanekin egin nahi nuen horrelakorik. Gero, “Oi, Bihotz!” suertatu zen egitea eta bi urteko lana eskatu digu. Baina behar hori banuen.

N. Zure lanekin egindako liburua egiteko asmoa duzu, beraz.

U. Z. Orain atsedean behar dut. Oso momentu egokia ez da gainera, ze gastu handia du eta oraintxe ez da momentu ona.

### Serigrafiak, salgai

N. Lan grafikoaren bidez, artista askoren obra sozializatu daiteke.

U. Z. Lan grafikoaren interesgarria da, jende batengana iristeko aukera ematen duelako. Artea oso garestia dela pentsatzen dute askok, baina serigrafiak artea jendearengana hurbiltzeko aukera ematen du. Hemen dauden lanak 120 eurotik 450 euro arteko prezioan daude.

### Urriaren 23ra arte zabalik Sutegin

URRIAK 7-URRIAK 23

Astegunetan: 16:00-19:00.

Larunbatetan:

11:30-14:00.

17:00-20:00.

Jaiegunetan: 11:30-14:00.

### Zumetaren margo berrienak, Paun ikusgai

Jose Luis Zumetaren azken lanak Paun (Frantzia) daude ikusgai. Azaroaren 7ra arte dago erakusketa zabalik. Koadroak formato ezberdinetakoak dira, oleoa paperean eta oleoa mihislean (azken hauek, formato handiagoan).



## Igande honetan, Buruntzaldeko Ibilbideen III. Eguna

**B**ailarako udalerrien arteko loturak sendotzea helburu duen goiz pasa antolatu dute igande honetarako, urriak 17; edo-nork parte hartzeko modua eskainiko duen Buruntzaldeko Ibilbideen III. Eguna. Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil lotuko dituzten bost ibilbide osatzeko aukera eskainiko dute ekimena antolatu duten aipatu herrietako udalek eta lekuan lekuko mendi taldeek. Goizeko 9:00-14:00 artean, Buruntzaldean barrena osteratxoia egiteko aukera paregabea izango da.

Oinetako eroso eta egokiak jantzi eta inguruetara ibilaldi bat egitera proposatzen dute igande honetarako, Buruntzaldeko lau udalerriek. Hirugarrenez, Ibilbideen Eguna ospatuko da urriaren 17an.

### Lehiakortasunik ez

Antolakuntzatik gogorazten dutenez, ekimen honetan lehiakortasunik ez du tarterik baina bestelako aukerarik eskaintzen du: “edozein publiko motarentzat egokia den kirola egiteko eta Buruntzaldea eskualdeko eta bere landa-ingurune naturala ezagutzeko aukera dugu”.

### INGURUA EZAGUTZEKO

“Igandeko irteerarekin, bertako landa-ingurunea hobeto ezagutzeko aukera izango da”

Igandeko irteerarekin, gertuko landa-ingurunea hobeto ezagutu eta hurbileko parajeez gozatu ahal izango da.

### Lau udalerrri, bost ibilbidez lotuta

Aukeran bost ibilbide izango dira guztira, bakoitza bere kolore identifi-



USURBILGO UDALETXEAN EGIN ZEN IBILALDIAREN AURKEZPENA.

kagarri, eta ez galtzeko informazio panel eta geziekin:

-Andoain-Lasarte-Oria (urdina, urre zaharra): 7,9 km. Oinez. Mendiko oinetakoa beharrezkoa.

-Andoain-Urnieta (urdina, berdea): 4,8 km. Oinez edo bizikletaz. Kirola egiteko oinetakoa beharrezkoa.

-Andoain-Usurbil (berdea, laranja): 14,9 km. Oinez. Mendiko oinetakoa beharrezkoa.

-Lasarte-Oria-Urnieta (urre zaharra, berdea): 3,9 km. Oinez edo bizikletaz. Kirola egiteko oinetakoa beharrezkoa.

-Lasarte-Oria-Usurbil (urre zaharra, laranja): 4,5 km. Oinez edo bizikletaz. Kirola egiteko oinetakoa beharrezkoa.

### Bus zerbitzua eta kamiseta, oroigarri moduan

Udalerrri bakoitzean finkatuko diren irteera guneeetan, partaideek zigitudun txartel bana jasoko dute. Andoain-Usurbil edota beste bi ibilbide osatzen dituenak kamiseta jasoko du oroigarri moduan. Amaieran, nor bere udalerrira itzultzeko bus zerbitzua izango da. Aipatu garraio bide publikora igotzeko ordea, irteera gunean jasotako zigitudun txartela erakutsi beharko da.

### Bus zerbitzua

**Ordutegia:** 9:00-14:00.

Herri bakoitzean kontrolak eta anoak:

**Usurbilen:** Santuenean, Zorrotzeko zubiaren parean.

**Andoainen eta Urnietan:** udaletxe azpian.

**Lasarte-Orian:** San Pedro eliza ondoko plazan.

Ibilbide bukaeran, itzultzeko autobus zerbitzua:

**Usurbilen:** 12:00, 13:00, 14:00 (udaletxe aurrean).

**Lasarte-Orian:** 12:15, 13:15, 14:15 (Dorretzeko biribilgunean).

**Andoainen:** 12:30, 13:30, 14:30 (Goiko plazaren atzealdean).

**Urnietan:** 12:40, 13:40, 14:40 (Kioskoko geltokian).

**Antolatzaileak:** Buruntzaldeko Udalak (Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil).

**Laguntzaileak:** Andatza Mendi Elkartea. Euskalduna Mendizale Elkartea. Ostadar K.F. Mendiko Saila. SUPER AMARA.

## Kaikuk irabazi zuen Trainerila Txapelketa

**K**aikuk irabazi zuen Aginagako IV. Trainerila Txapelketa. Lehia polita eta estua izan zen larunbatekoa. Ia denbora berean iritsi ziren Orio eta Kaikuko txalupak, baina segundu erdiko aldeगतिक, azkenean Kaiku izan zen Aginagako ikurriña etxeratu zuena. Aginagak lan ona egin zuen eta hirugarren sailkatu zen. San Juan, San Pedro, Hondarribia, Igeldo Herria eta Zarautz izan ziren errioren lanean aritu ziren gainerako trainerilak.

### Sailkapena

- 1- Kaiku 8'17''.
- 2- Orio (segundu erdira).
- 3- Aginaga (4 segundura).
- 4- Hondarribia
- 5- San Juan
- 6- Zarautz
- 7- San Pedro
- 8- Igeldo Herria!

Trainerila txapelketaren aurretik eta jaien lau eguneko etenaldiaren ondoren, Haurren Egunarekin ekin zioten



KAIKUKOAK, BANDERA ESKURATU BERRITAN (ARGAZKIA: JOSU ARANBERRI).

San Praixkuetako bigarren asteburuari Aginagan. Jokoak edota eskulanak egiteko gunea zabaldu zuten goizez. Arratsaldez puzgarriak, txokolate jana eta buruhandiak. Ondo pasatzeko egun aproposa haurrentzat, baita eguneroko zereginak albo batera uzteko ere. Hain zuzen, Aginagako Eskola Txikian jai baitzuten ikasleek.

Asteburua, bertso-afari, kantu baz-

kari, umoreari tarte egin zion herri antzerki edota Abiba eta Larra Dj-k girotutako gau jendetsuak osatu dute. Akabo, bukatu dira aurtengo San Praixkuak ere. Atzean geratu dira, jai giroa, parranda eta ondo pasatzeko aitzakia ederrean bihurtutako ekitaldiak. Jarritakoa bildu eta balorazio garaia da orain, datorren urteko festetan pentsatzen hasi aurretik.

## Euskal Jaia, inoizko jendetsuena



**E**uskal Jaia ospatu zen astearte honetan Zubietan. Urtez urte, urriaren 12ko egunaz sendotzen ari den ospakizuna. Usurbilgo Kantu Taldekoak eguerditik hasi ziren giroa

alaitzen.

Bien bitartean, euskal arrazako animalien erakusketa egin zen; argazkian ikus daitekeen bezala, txikiak gozamen eraginez.

### Herri batzarra, larunbat honetan

**U**surbilgo ezker abertzaleak herri batzarra deitu du datorren larunbaterako. Bi gai nagusi jorratuko dira bilkuran: batetik, egoera politikoaren hausnarketa partekatzea eta bestetik, hurrengo hilabeteetako helburu eta lan lerro nagusiak kokatzea nazional eta herri mailan. Usurbilgo ezker abertzaleak hitzordura bertaratzeraz deitzen ditu herritarrak. "Erronka garrantzitsuak ditugu eskuartean. Denon partehartzea ezinbestekoa denez, gaien garrantziaz jabetu eta bertan ikusiko garenaren itxaropenaz agurtzen gara". Hitzordua larunbat honetan, urriak 16, 15:45ean Artzabalena.

# Usurbilgo eskulturak

**K**aixo irakurleok! Udarregi ikastolako L.H. 6.mailako ikasleak gara eta artearen munduan murgilduta gabiltza buru belarri. Oraingo honetan eskulturak sortu behar ditugu baina lehenik herrian ditugun eskulturak ezagutzeari komeni zaigula eta bildu dugun informazioa zuekin partekatzea bururatu zaigu.

Ondorengo lerroetan, gelan landutakoaren laburpentxoak da.

Esan bezala, gure herrian hainbat eskultura daukagu. Esaterako:

## Elizaldeko murala

1.- Elizaldeko murala, 1973an Jose Luis Zumetak egina. 1 metroko zabalera eta 19 metroko altuera ditu eta zeramikaz egina dago.

## Udarregiren eskultura

2.- Udarregiren eskultura, XIX. mendeko bertsolari handiaren omenez eginikoa. Kontseju txiki eta Matistanea etxean aurrealdean dago. Harrizko paralelepipedoaren gainean ageri den kubo zuloduna da eskultura, Remigio Mendiburuk egina 1966an.

## Zeramikazko irudiak

3.- Askatasuna plazako zeramikazko irudiak, Karlos Zabala "Arrastalu"k egina 1990 hamarkadaren hasieran.

## Sagardoaren monumentua


4.- Elizaldeko sagardoaren monumentua, Gotzon Huegunek egina. Botilatik basora sagardoaren erortzea islatu nahi izan zuen. Eskultura hau 2007an jarri zuten.

## Kalezarreko oroigarria

5.- Kalezarko seigarren mendeurrenaren oroigarria. Felix Aizpurua plazaren bazter batean, Usurbili hiribildu titulua eman zitzaion seihun urte ospatzeko. Belmonte Enrikek errege eskutiz bidez adierazi zuen eta horregatik "Belmonte de Usurbil" izena jarri zioten.

Horrenbeste lan egin ondoren seguru gure eskulturak ere bikainak izango direla.

Udarregiko LH 6. mailako ikasleak



2007AN JARRI ZEN ESKULTURA HAU  
GOTZON HUEGUNEK EGINA DA.



HIRIBILDU TITULUA EMAN ZITZAIONEKO URTEURRENEAN  
JARRI ZEN HONAKO ESKULTURA.

## Andatza Mendi Taldea: “Uzten badugu, atea itxi beharko ditugu eta hau desagertu egingo da”

**A**ndatza Mendi Taldea desagertzear da. Epe motzean erreleborik ez bada, antolakuntza lanei ekiten hasteko kide berririk gerturatzeko ez bada, urteetan mendizaleen bilgune izan dena desegino da. Egungo kideek taldea uzteko asmoa dute. Jende berria hurbiltzen bada ordea, errelebo zereginetan laguntzeko prest daude.

**NOAUA!** Zein da Andatza Mendi Taldean, egun duzuen egoera?

**Andoni Udabe.** Lauzpabost kide gabil-tza. Denak herrikoak gara baina egun, denak kasualitatez herritik kanpo bizi gara. Pena handia dugu, baina uztekotan gaude.

**N. Oraingoan, erreleborik ez dago?**

**Aloña Azpiroz.** Duela pare bat urte deialdia egin zen, ia jendea animatzen zen. Bakarria etorri zen. Iaz, bilerak egite-ari utzi genion eta urteko lau ekitaldi puntualak antolatu genituen.

**A. U.** Lehendik hileroko zerbait egiten saiatzen ginen, baina azkeneko urteetan ikusi genuen joera hori ez zela betetzen, eta bilerak eta ekitaldiak murriztu genituen.

### IAZ EGINDAKOAK

“Zortzi orduko ibilaldia, Andatza Eguna, Pirinioetara irteera eta Mendi Astea antolatu zuten iaz”

**N.** Iaz egin zenuten laguntza deialdia, baina esperotako erantzunik ez duzue jaso?

**A. U.** Agian planteamenduetan huts egin dugu, edo jendearengana ez gara ailegatu. Planteamendu desberdinak egiten saiatu garen arren, ez du fruiturik eman.

**N.** Jendeak aldiz federazio txartela eskuratzen jarraitzen du. Mendizaleetasuna bizirik dago?

**A. A.** Jendea mendira joaten da, baina norbera bere kontutik.

**A. U.** Aldiz, Andatzatik taldean joate horri tarte bat egiten saiatu izan gara.



IAZKO UZTAILEAN, PIRINIOETAN EGINDAKO ARGAZKIA.

Bazkideen inguruan, esango nuke, inoiz baino bazkide gehiago dugula. 140 badi-tugu. Jendea, mendira behin ere baino gehiago joaten da.

**N.** Andatzara hurbildu nahi duen edonori zuzenduta, azken deialdia burutu nahi duzue.

**A. A.** Andatzak arnas berria behar du. Berdin da gazte edo heldu izan. Ez bada inor etortzen, irteerak ez dira antolatuko, usurbildarrek orain arte hemen egiten diren federatu txartelak inguruko beste herri bateko mendi talde batean eskuratu beharko dituzte...

**A. U.** Gazte edo heldu, taldean parte hartzeko prest badaude, aurrera. Uzten badugu, atea itxi beharko ditugu eta hau desagertu egingo da.

**N.** Antolakuntzan parte hartzeri animatzen denak zer egin beharko luke?

**A. U.** Gu uztekotan gaude, baina inor etorri eta antolakuntza lana hartzeko prest balego, lagunduko genuke.

**A. A.** Gaudenok laguntzeko prest gaude, baina hor behar duena antolatu edo martxa eramango duen norbait, erreleboa. Taldearekin harremanetan jartzeko: andatza@hotmail.com

## “Taldeen joateak, leku berri asko ezagutzeko aukera eman digu”

**NOAUA!** Urteak daramatzazue Andatzan. Irteeren inguruan, bizipen ugari izango dituzue?

**Andoni Udabe.** Banekien koadrila-koak ez zirela etorriko eta lehen aldiz, 16 urterekin etorri nintzen bakarrik. Gustatu egin zitzaidan. Une hartan elkartzen ziren bizpahiru koadrila zeuden. Egundua pasa joaten ginen, talde giroan. Orduan mendian ibiltzen zen jendea zegoen. Baina gertatu daiteke gaur egun, mendira asko joan ez, baina gogoia izatea. Taldean joateak, leku berri asko ezagutzeko aukera ematen du, bakarrik joan beharrean taldean, autoan joan beharrean auto-

busak ematen duen beste askatasun batekin, eta dena antolatuta. Irteeretan beti pizgarriak bilatzen saiatu izan gara.

**Aloña Azpiroz.** Irteeretara joan izan direnei galdetuta, denek ondo pasa dutela esango dute. Gero ere adin desberdinetako jendea biltzen ginen eta gure abenturak izaten genituen. Oso positiboa izan da. Denon helburua mendira joan eta gure arteko harremana sendotzea izan da. Herri berean bizituta, agurtu besterik egiten ez zenion pertsona bati, gero harremana sortzen da azkenean. Eta hori da gehien baloratzen duzuna.





## Agenda !!

**Urriak 15 ostirala**  
20.00etan Salvatore Parrokian,  
organo kontzertua. Doan.

**Urriak 21 osteguna**  
18:00etan Usurbilgo Berdintasun  
Planaren aurkezpena, Artzabalen.

**Urriak 22 ostirala**  
17:30ean "Hala Bazan" txotxongilo  
ikuskitzuna Sutegin. Doan.

## Goardiako farmaziak

**Urriak 14, osteguna**  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Urriak 15, ostirala**  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Urriak 16, larunbata**  
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Urriak 17, igandea**  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Urriak 18, astelehena**  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Urriak 19, asteartea**  
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

**Urriak 20, asteazkena**  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Urriak 21, osteguna**  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Urriak 22, ostirala**  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Urriak 23, larunbata**  
Oa, Kontseju Zarra 11 Usurbil  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Urriak 24, igandea**  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
*Chucla farmazia (22:00-09:00),  
Kandaberaz, 48, Hernani (943 551 793)  
\*Usurbilen, soilik eguerdira arte*

## Ostiral honetan, italiar organo-jole onenatariko bat ikusteko aukera aparta

**O**stiral honetan, arratsaldeko 20:00etatik aurrera, organo kontzertu bikain bat ikusteko aukera izango dugu Salvatore elizan. Wladimir Matesic italiar organo-jolea arituko da Organoaren Lagunak taldeak antolatu duen kontzertuan.

Matesic organo-jolea Bolonian (Italia) jaio zen 1969an. Etxean ere baziren musikariak eta, antza, hortik datorkio organorako joera. Alemanian eta Suitzan sakondu zituen organo ikasketak eta 1996 urtetik hona, hainbat sari irabazi ditu.

Gaur egun, Triesteko kontserbatorio-ko organo irakaslea da. Eta "Ahotsak eta organoa Apeninoetan" izeneko jaialdia



WLADIMIR MATESIC SALVATORE PARROKIAN IZANGO DA OSTIRALEAN.

ere zuzentzen du. Beraz, ostiral honetan aditu bat zuzenean ikusteko aukera aparta izango dugu.

Salvatore parrokiaren, Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin egingo da organo kontzertua.

## Seme-alabekin liskar txikiak gainditzeko hitzaldia Udarregi ikastolan

**S**eme alaben aurrean, zailtasun eta ezintasun ezberdinak suertatu ohi dira. Gehienak normalak omen dira, adinaren kontuak... "Eta zer! Niri ezin-egon handia sortzen didate eta hobetzeko zerbait egin nahiko nuke", pentsa dezake baten batek. Hori argitzera dator ostegun honetarako Hitz-Ahok antolatu duen hitzaldia.

Egunerokotasunean sortzen diren liskar txikiak handi egiten dira. Liskar "txiki" hauen bidez lantzen ditugu jarrerak, izaerak, baloreak... Hausnarketarako hitzaldia da Hitz-

Aho Udarregi ikastolako guraso elkarteak antolatu duena. Bertan, gaia orokorrean azalduko da eta azaroan egingo diren tailerretan (hiruna saio talde bakoitzeko HH, LH, DBH) kasu praktikoak jorrazteko aukera izango delarik. Egutegi hori urrian zehar zehaztuko da.

**"Familiako liskar txiki handiak"**  
Interesa duten guraso guztientzat.

Urriak 14 osteguna, 17:00etan, Udarregi ikastolako erdiko aretoan. Izar Arregi Aizpuru (psikologoa). Haurtzaindegi zerbitzua izango da.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321  
publizitatea@noaua.com

**txirriStra**  
KONTSEJUZZARRA 13  
943 360 466  
pintxoak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak  
**TABERNA**

## ETXEBIZITZA

- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukaldea, komuna. 60 metro karratu. 665 736 896 (Inaki).
- Pisu bat hartuko nuke alokairuan Usurbilen, bi hilabetez. Presazkoa da. 671 45 00 90.
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Orioko Alde Zaharrean, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukaldea-sala. 661 679 691.
- Pisu bat alokatuko nuke, 3 logelakoa eta amueblatua. 646 086 109.
- Logela bat alokatuko nuke edo konpartitzeko etxe batean sartuko nintzateke alokairuan. Nire telefono zenbakia: 648 005 159.
- Apartamentu edo logela bat alokatuko genukeen bikote bat gara. 677866495
- 60 metro karratuko pisu salgai kaxkoan. 2 gela, sala, sukaldea, komuna eta trasteroa. Dena berrituta eta amueblatuta. Igogailua, hiru balkoi eta oso eguzkitsua. Tf: 686 969 112.
- Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar (Castelló) herrian. 655 731 915.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera dago etxe azpian garajea erosteko. 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 364 637 / 943 365 299
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landetxe bat salgai Alfaron (Errioxa). Astebukaerak eta oporraldietarako egokia. Terreno eta pistinarekin. Herriatik 1,2 kilometrotara. 2 logela, egongela ximenearekin, sukaldea, komuna, portxea. 675702428 (gauetz).
- Etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. Deitu 20:00etatik aurrera 661568471.
- Gela bat alokairuan pertsona serio batentzat, pisu berri batean. 300 euro, gastuak aparte. Usurbil inguruan. 609 901 734 edo 943 575 788.
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitsua eta berri-tua. Interesatuak deitu: 637225620.
- Pisu bila nabil Usurbilen. Alokairuan nahi nuke. 664 885 737.
- 95metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldatetako egiteko aukera asko. 141.000 euro. 943 36 98 35 (21:00etatik aurrera).
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailan. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Santuenea 26an 60 metro karratuko etxea daukagu salgai. 2 gela, sukaldea handia, etxek kanpokaldera ematen du, gasa eta kalefazioa ditu. 200.000. 666539284.
- Etxe berria salgai Kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.
- Lasarten apartamentu bat salgai, egoera onean. Erdigunean. Toki lasaia eta berritu berria. Bikote batentzat egokia. 657708866

## SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Txaramunto auzoan 15 metro karratuko garaje itxi bat alokatzen da 85 euro. Interesatuak deitu: 661 618 970.
- Garaje lerroa salgai Munalurran. 678 225 241.
- Munalurra auzoan jarraian dauden garajeak bi marra dauzkat salgai. Biak batera edo banaka. 678225241.
- 33m karratuko lokal bat alokatzen dit Atxegalden 280 eurotan. Sarrera egokia. 943373414
- 2006ko Ford Transit Td/240s Kombi6 salgai. Ioseba 669 074 698.
- Zazpi plaza dituen Kia Carnival bat saltzen dugu. 2004

- urtekoa da eta 118.000 km dauzka, ondo zaindua, beti garajeen egondakoa. 669353942.
- Bizkarre kalean garaje itxi bat daukagu salgai. Altura bikoitza du eta altilo bat egina dauka. Interesatuak deitu 943576957 telefonora.
- Karabana bat salgai. Modelo zaharra da baina egoera oso onean dago. Prezio interesgarria. 646514494
- Mitsubishi L200 bat salgai. SS-AZ eta egoera onean. 646514494
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metroko altuera. 943361265.
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajeen, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Arisitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.

## LANPOSTUAK

## Lan-eskaerak

- LH-n edota DBH-n klase partikularrak emateko prest egongo al zinake? Hala bada, pasa zaitetz Udarregi Ikastolako idazkaritzatik izena ematera.
- Pertsona baten bila gabilza irailetik aurrera eguerditan haurra ikastolatik etxera ekarri eta bazkaria emateko. Interesatuak deitu 696429899.
- Astebukaeratan lan egiteko, zerbitzari moduan aritzeko pertsona bat behar dugu. 943 36 67 10.

## Lan-eskaintzak

- Neska bat eskaintzen da, etxeko lan egiteko, pertsona helduak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile aritzeko. Gidabaimena eta disponibilitate osoa. 618722117.
- Lehen Hezkuntzako diplomatuak klase partikularrak ematen ditu ikasgai guztietan, Usurbilgo lokallean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lan egiteko edo pertsonak helduak zaintzeko. 696537247
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362
- Usurbilen urte asko daraman emakume bat eskaintzen da etxeko lan egiteko, interna moduan edo ordu-tegi luzerako. Erreferentziekin. 687348223 / 943364310.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri edo baratzeko lan egiteko, mendia garbitzeko edo igeltsaritza lanetan aritzeko. 677593772.
- Etxeko lan egiteko prest nago, arratsalde, baita jende nagusia edo gazte txoko orduka zaintzeko ere. Telefono zenbakia: 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lan egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziaduna. 658107757
- 23 urteko mutila, Usurbilen lan bila dabil barrako zerbitzari edo sukaldari laguntzaile gisa lan egiteko urte osorako. Lanean berehala hasteko prest: 622 065 461 (Alex).
- Neska bat, etxeko lan egiteko haurrak zaintzeko prest, goizez 8:00-15:00 artean. 679 742 413.
- Astebukaeratan edo astean zehar goizeko 10:00etatik arratsaldeko 16:00ak arte garbiketa lanak edo pertsona helduen zaintzan lan egingo nuke. Interesatuak deitu 618410123
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lan egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411
- Etxeko lan egiteko emakume bat eskaintzen da. 630438571
- Gizon bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko edo baserriko lan egiteko. 662461568
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Inaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. Interesatuak deitu 656446835
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsalde orduka lan

- egiteko prest. 648 785 026.
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Mendiari edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646 717 676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943 368 574.
- Etxeko lan egiteko emakume bat eskaintzen da. 620 185 927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685 716 774.
- Etxeko lan egiteko neska bat eskaintzen da. 630 768 325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lan egiteko. 620 364 176.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lan egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

## BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- 1'50eko ohe osoa salgai. Somierra eta koltxoia. Prezio onean. 943 366 589.
- Gurdindun aulki bat daukagu. Behar duen edozeini emango genioke. 943363201.
- Irailaren 30eko arratsaldean, Nintendo DS baten Rayo Mc Queen funta gorria eta beltza galdu nuen Aritzetako ptrelean, barruan joko batzuk zituela. Norbait aurkitu badu 943 36 34 48 deitu eta eskertuko da.
- Moxila gorri bat galdu da barruan futboleko botak eta eskularrak zituela. Aurkitzen duenak mesedez deitu 656 702 957. Mila esker.
- Irailaren 22an arratsaldeko 18:00ak eta 20:00ak bitartean olympus markako argazki kamara bat galdu da polikiroldegi inguruan (aparkalekua eta nesken aldagela bitartean). Seme alabaren argazkiak ditut eta berreskuratu nahiko nituzke. 615756893. Ondo konpentsatuko da.
- Bugaboo markako umeentzako kotxea daukat salgai. Kapazoa eta silla ditu eta burbuja eta zakutxoia ere bai. Interesatuak deitu 616586851 telefonora.
- Su-egurari salgai modu onean. 689937338 Jesus Mari.
- 7 gazteko lagun taldea gara eta lokal bat alokairuan hartuko genuke. 617 802 088.
- Flex markako ohe artikulatua eta latex koltxoia salgai. 700 euro. 667521874
- Wii kontsolarren softwarearen aldatzen da segurtasunaren kopiak kargatu ahal izateko, DVDaren edo USBaren bidez txipik instalatzeko beharrik gabe. Kontsola ez da irekitzen eta horrela, garrantia ez da galtzen, dena softwarearen bidez egiten da. 635729637
- Argazki zaharrak berritzen ditut. Bideoak montatzen ditut bai bideoarekin, bai argazkiekin DVD formatoan. 635729637
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikuilu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan: 616260451
- Ostalaritza-ko makinaria, kafetegiko altzariak salgai; aulkiak, mahaia, kafe-makina, 607 389 570 (Mireia). istergo@hotmail.com
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Inaki)
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Etxebizitza erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173 466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien muak jaioberriekin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220 925.



## Zorionak Aitor!

Zorionak 7 urte handi horien-gatik gure mutiko alaiarentzat. Urriaren 17rako prestatu behar dugu parranda eeeeeaarraa e.!! Aupa Aitor!



## Zorionak Carlos!

Urriaren 17an zure lehenbiziko urtea beteko duzu. Zorionak eta muxu handi bat zure arreba Mariaren partez.

## HILDAKOAK

Oskar Aierbe Maiztegi  
Urriaren 11n hil zen,  
44 urterekin



Oharra, zorion agurrak, jaio edo hildakoen berri emateko azken eguna: asteartea, eguerdiko 12:00etan. erredakzioa@noaua.com

Ordu-tegi gehiago eskuratu nahi badituzu,  
**NOAUA!** Kultur Elkarteko bulegotik pasa  
edo Udaletxetik

Tren eta autobus

**Noaua!**  
www.noaua.com

ordutegia 10/11

# Usurbil Kantuz

Usurbilgo kantu taldea  
**2010**

Liburua salgai 3€tan  
Noaua!n, Lizardin  
eta Lauroken



**Noaua!**  
www.noaua.com

Usurbilgo kantu taldea



# Ofizioen Gida



**URDAINTZI**  
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64  
urdaintzi@euskalnet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK  
· BERRITZE LANAK

Andoni Errazkin

**Xukin**  
igeltseritza orokorra

663 08 76 71  
943 24 34 65

Barne eta kanpoko lanak

Josue  
Igeltseritza

Fax: 943 24 34 60  
Atallu pol. atallu, 28  
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

 **Errazkin S.L.**

igeltseritza orokorra  
943 372 679 eta 649 435 470

kale nagusia 47, behea A

**Jose Aizpurua Unanue**

 teilatuak eta fatxadak

943 69 68 52  
620 80 01 86

Obaba kalea 29, Asteasu



**LATAILLADE**

 **ITURGINTZA**

Gas, berogintza,  
klimatizazioa, instalazioak  
eta mantenimendua

943 363 348 - 609 888 021

 **Enrique Alonso**

**ITURGINTZA**  
**GASA-BEROKUNTZA**

Oro har libratze-lanak  
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa  
**BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA**

659 675 283

**Javier Orbegozo**

**GASA-BEROKUNTZA**

659 602 789

erreka txiki 13, 3.esk

**JOSEBA**  
**ARANGUREN**

**ITURGINTZA**

943 83 00 72  
659 88 39 12



izagirrelektrizitatea@hotmail.com

**izagirre**

Apdo. 37  
943 36 50 95  
609 06 81 11  
943 37 65 87

**Elektrizitatea**  
Goiz Argi etxea nº 37  
Kale Zahar Auzea



**Antonio**  
**URRUZOLA**

**AROSZTEGIA**

Tel/Fax: 943 376 415

Asteasuain Industrialdea, 3

**BARRENETXE**

Salsamendi Arregi, Imanol

**AROSZTEGIA**

943 362 664

Barren Etxe kalea ZUBIETA



**MARGOAK - PAPERAK**

**FERNANDO**  
**PINTORAK**

ENPAPELAKETAK eta  
PINTURAK OROKORREAN

nagusia, 1 TEL: 943 36 60 19



 **PLAKODUR**

Eskaiola eta Pladurra

943 00 85 44 - 634 45 78 78